# Bartzelonako azpi munduan murgildu da Touré bere 11. liburuan

Etorkin burkinarraren serieak izandako arrakastaren ondoren, Jon Arretxe idazleak 'Zenbaki gorriak' (Erein) nobela aurkeztu du

ITZIAR ALTUNA

DONOSTIA. Bartzelona aldera egin du bidaia oraingoan Tourék. Jon Arretxek sortutako pertsonaiak inoiz imajinatuko ez zituen gauzak egin beharko ditu hiri honetan bizirik irauteko, degradazio-maila beherenera iristeraino. Burkina Fason jaio eta Bilbora iritsi zen etorkin honen abenturak kontatzen dituen hamaikagarren liburua da 'Zenbaki gorriak' (Erein), autorearen esanetan aurrekoak baino «dramatikoagoa», izan ere protagonistak «bakar-bakarrik» egin beharko die aurre eguneroko egoerei. Bizirautea izango da bere helburu nagusia.

Sagako beste liburuetan bezala, Europa diruduneko baztertuen azpi mundua erakusten du Jon Arretxek. Bilbon, Parisen, Nafarroan, Madrilen edo Las Palmasen girotu ditu bildumako beste istorioak eta Bartzelona aukeratu du azken honetan turismo-leku eder honen atzean ezkutatzen dena azaleratzeko. Horretarako, «beti egin ohi dudan bezala», Raval auzoan murgildu zen Arretxe, bertako errealitatea ikusteko. Hiru alditan izan zen bertan, «ostatu merke» batetan, auzoko giroa gertutik sentitzen. «Narko-pisu asko daude bertan, lapurketak, zikinkeria... izugarrizko koktela da, nobela beltzeko idazle batentzat oso leku interesgarria», aitortu zuen liburuaren aurkezpenean.

Tourék abentura honetan topatuko dituen pertsonaia gehienak «egiazkoak» dira, baita hainbat egoera ere, autoreak zuzenean bertan bizitakoak. «Ikusten dudan guztia aprobetxatzen dut, beste liburuetan bezala». Honela, kalean lo egiten duten pertsonak, gosearen ilaratan topatutakoak, baina baita laguntzeko prest dauden bolondresak izango ditu bidelagun burkinarrak.




Jon Arretxe atzo Donostian, liburu berriaren aurkezpenean. IÑIGO ROYO

Bartzelona «ezezagun» bat erakusten du liburu honetan Arretxek Tourréren bidez, Jose Inazio Mujika editorearen esanetan. «Bartzelona etsai bat aurkituko dugu eta esklusioaren eta arriskuzko egoeren istorioak». Argitaletxetik beti azpimarratu dute Touréren sail osoak duen «karga sozial handia», azken liburu honetan ere jasotzen dena, «emigrazioaren gaineko begirada xamurra, baina gogorra aldi berean». Pertsonaiak «oso sinesgarriak» direla azaldu du Mujikak, «irakurlearen oroimenean geratuko direnak».

**ZENBAKI GORRIAK**
**JON ARRETXE**

Estiloa: Nobela.
Argitaletxea: Erein
Orrialdeak: 184.
Prezioa: 21,5 euro.

## Liburutik pantailara

Pozik agertu da Jon Arretxe Touré protagonistaren abenturek izandako arrakastarekin, bai liburuetan eta bai pantailan. Izan ere, urte hasieran ETBn emititu zen 'Touré detektibea' seriea eta orain TVEn ikusteko aukera dago. Audientzia datuak «oso onak» izan direla onartu zuen idazle bizkaitarrak, eta bigarren denboraldia prestatzen hasiak direla aurreratu zuen.

Malcolm Treviño-Sitték jarri dio aurpegia Touré etorkinari pantailan, baina irakurleek protagonistaren irudi bat buruan izateak ez dio axola Arretxeri. «Berdin jarraitzen dut idazten», zioen, «konbentzitua jarraitzen dut egin nahi dudanarekin».

'Zenbaki gorria' euskaraz argitaratu du Erein argitaletxeak, baina Touréren aurreko hamar liburuekin egin bezala, hilabete batzuk barru aterako da gaztelaniazko bertsioa.

---

**LOTERÍA NACIONAL**
**SORTEO DEL JUEVES**

SORTEO 95/24

**SORTEO DEL DÍA 28 DE NOVIEMBRE DE 2024**
**Seis series de 100.000 billetes cada una**
**Lista acumulada de las cantidades que han correspondido a cada una de las seis series de los números premiados, clasificados por su cifra final**

Estos premios caducan a los tres meses, contados a partir del día siguiente al de la celebración del sorteo



| 0 | | 1 | | 2 | | 3 | | 4 | | 5 | | 6 | | 7 | | 8 | | 9 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete | Números | Euros/Billete |
| 45600 | 300 | 45601 | 300 | 45602 | 300 | 45603 | 300 | 45604 | 300 | 45605 | 300 | 45606 | 300 | 45607 | 330 | 45608 | 330 | 45609 | 330 |
| 45610 | 360 | 45611 | 300 | 45612 | 300 | 45613 | 300 | 45614 | 300 | 45615 | 300 | 45616 | 300 | 45617 | 330 | 45618 | 330 | 45619 | 390 |
| 45620 | 300 | 45621 | 300 | 45622 | 300 | 45623 | 300 | 45624 | 300 | 45625 | 300 | 45626 | 300 | 45627 | 330 | 45628 | 330 | 45629 | 330 |
| 45630 | 300 | 45631 | 300 | 45632 | 360 | 45633 | 300 | 45634 | 360 | 45635 | 300 | 45636 | 300 | 45637 | 330 | 45638 | 330 | 45639 | 330 |
| 45640 | 300 | 45641 | 300 | 45642 | 300 | 45643 | 300 | 45644 | 360 | 45645 | 300 | 45646 | 300 | 45647 | 330 | 45648 | 330 | 45649 | 330 |
| 45650 | 300 | 45651 | 300 | 45652 | 300 | 45653 | 300 | 45654 | 300 | 45655 | 300 | 45656 | 360 | 45657 | 390 | 45658 | 330 | 45659 | 330 |
| 45660 | 300 | 45661 | 300 | 45662 | 300 | 45663 | 300 | 45664 | 300 | 45665 | 300 | 45666 | 300 | 45667 | 330 | 45668 | 330 | 45669 | 330 |
| 45670 | 300 | 45671 | 300 | 45672 | 450 | 45673 | 360 | 45674 | 300 | 45675 | 300 | 45676 | 300 | 45677 | 330 | 45678 | 330 | 45679 | 330 |
| 45680 | 300 | 45681 | 300 | 45682 | 300 | 45683 | 300 | 45684 | 300 | 45685 | 360 | 45686 | 300 | 45687 | 330 | 45688 | 330 | 45689 | 330 |
| 45690 | 300 | 45691 | 300 | 45692 | 300 | 45693 | 300 | 45694 | 300 | 45695 | 300 | 45696 | 300 | 45697 | 12.330 | **45698** | **300.000** | 45699 | 12.330 |
| 63300 | 150 | 63301 | 150 | 63302 | 150 | 63303 | 150 | 63304 | 150 | 63305 | 150 | 63306 | 150 | 63307 | 180 | 63308 | 180 | 63309 | 180 |
| 63310 | 210 | 63311 | 150 | 63312 | 150 | 63313 | 150 | 63314 | 150 | 63315 | 150 | 63316 | 150 | 63317 | 180 | 63318 | 180 | 63319 | 240 |
| 63320 | 150 | 63321 | 150 | 63322 | 150 | 63323 | 150 | 63324 | 150 | 63325 | 150 | 63326 | 150 | 63327 | 180 | 63328 | 180 | 63329 | 180 |
| 63330 | 150 | 63331 | 150 | 63332 | 210 | 63333 | 150 | 63334 | 210 | 63335 | 150 | 63336 | 150 | 63337 | 180 | 63338 | 180 | 63339 | 180 |
| 63340 | 150 | 63341 | 150 | 63342 | 150 | 63343 | 150 | 63344 | 210 | 63345 | 150 | 63346 | 150 | 63347 | 180 | 63348 | 180 | 63349 | 180 |
| 63350 | 150 | 63351 | 150 | 63352 | 150 | 63353 | 150 | 63354 | 150 | 63355 | 150 | 63356 | 210 | 63357 | 240 | 63358 | 180 | 63359 | 180 |
| 63360 | 150 | 63361 | 150 | 63362 | 150 | 63363 | 150 | 63364 | 150 | 63365 | 150 | 63366 | 150 | 63367 | 180 | 63368 | 180 | 63369 | 180 |
| 63370 | 150 | 63371 | 150 | 63372 | 150 | 63373 | 210 | 63374 | 150 | 63375 | 150 | 63376 | 150 | 63377 | 180 | 63378 | 7.650 | **63379** | **60.030** |
| 63380 | 7.620 | 63381 | 150 | 63382 | 150 | 63383 | 150 | 63384 | 150 | 63385 | 210 | 63386 | 150 | 63387 | 180 | 63388 | 180 | 63389 | 180 |
| 63390 | 150 | 63391 | 150 | 63392 | 150 | 63393 | 150 | 63394 | 150 | 63395 | 150 | 63396 | 150 | 63397 | 180 | 63398 | 240 | 63399 | 180 |

**Terminaciones**

| 0 | | 1 | | 2 | | 3 | | 4 | | 5 | | 6 | | 7 | | 8 | | 9 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 850 | 150 | | | 2762 | 750 | 73 | 60 | 34 | 60 | 8765 | 750 | 866 | 150 | 2607 | 780 | 5698 | 990 | 009 | 180 |
| 10 | 60 | | | 672 | 150 | | | 44 | 60 | 9175 | 750 | 56 | 60 | 57 | 90 | 198 | 240 | 19 | 90 |
| | | | | 32 | 60 | | | | | 85 | 60 | | | 7 | 30 | 568 | 180 | 9 | 30 |
| | | | | | | | | | | | | | | | | 698 | 240 | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | 828 | 180 | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | 98 | 90 | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | 8 | 30 | | |

**ESTE SORTEO PONE EN JUEGO 12.600.000 EUROS EN PREMIOS**

INSTRUCCIONES PARA LA CONSULTA DE ESTA LISTA

1.ª Compruebe si la fecha del sorteo y el dibujo que figuran en la parte superior de la lista coinciden con los de su billete o décimo.
2.ª En cada columna, y sólo en ella, están todos los premios y reintegros que han correspondido a todos los números que terminan con la cifra grande que la encabeza, clasificados en dos grupos: números completos y terminaciones.
Por ejemplo, si su número termina en 1, ha de fijar su atención únicamente en la columna encabezada con un uno. **Los premios indicados en la columna «euros/billete» son los que corresponden a un billete, o sea, a diez décimos.**
3.ª Vea si en la columna de números aparece el que Vd. juega y, si así fuera, a la derecha encontrará acumulado el importe total de los premios que han correspondido al billete.
4.ª Si no está su número completo puede tener premio en el grupo de terminaciones. Si las hay de cuatro cifras y su número las tiene igualmente dispuestas, a la derecha encontrará el total de premios que han correspondido a todos los números que terminan con esas cuatro cifras.
Si no tiene premio por terminación de cuatro cifras, o no las hay, proceda en la misma forma con las terminaciones de tres cifras, en su caso con las de dos y, finalmente, con las de una.